

ITUNA PACTO



Herri Ituna
berdintasunaren
eta emakumeen
aurkako indarkeriarik
gabeko bizitzen
alde.

**Herri Ituna
berdintasunaren eta
emakumeen aurkako
indarkeriarik gabeko
bizitzen alde.**

2022ko ekaina

ITUNA PACTO

Aurkezpena

Dosier honen helburua da, alde batetik, ezagutaraztea NBE Emakumeak erakundeak Beijingeko Emakumeen Munduko IV. Konferentziaren 25. urteurrena ospatzeko diseinatutako **Generation Equality** ekimena, eta, bestetik, jakinaraztea Euskadi ekimen hori bultzatzen ari dela herri Itun handi bat lortzeko berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzeko alde.

Itun hori eta Itunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari emango dion bultzada, Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak dira.



Emakumeen Munduko IV. Konferentziaren 25. urteurrenerako ekimen globala.

2020an 25 urte bete ziren Beijingeko Adierazpena eta Ekintza-plataforma onartu zenetik. Mundu-mailako programa horren helburuekin eta neurriekin gobernuak elkarrekin munduko emakumeen eskubideak garatzeko eta bermatzeko prozesuan aurrera egiteko konpromisoa hartu zuten. Deklarazioa Beijingen izandako Emakumeen Munduko IV. Konferentzian onartu zen eta bertan, gaur egun indarrean jarraitzen duten bi estrategia orokor garrantzitsu ezarri ziren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko: alde batetik, emakumeen eta nesken ahalduntzea, eta bestetik, genero-ikuspegia bizitzako alor guztietan integratzea.

Emakumeen Munduko IV. Konferentzian hainbat herrialdeko gobernuen 189 ordezkariak parte hartu zuten eta 30.000 emakume eta neskatok Foro Alternatiboan behatzaile gisa parte hartu zuten, horietatik 40 emakume Euskadiko emakume-elkarteen izenean joan ziren. Konferentzia horren ondorio izan zen aurrekaririk gabeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko mundu-mailako akordio bat. Akordioa bihurgune izan da mundu osoan maila guztietako berdintasun-politiken garapenean.

Adierazpena eta Plataforma herrialde guztietan berdintasun politikak garatzeko eta egindako aurrerapausoen kontu emateko garrantzi handiena izan duten tresnak izan dira. Ekintza-plataforman, benetako berdintasuna lortzeko esku hartu beharreko 12 ekintza-eremu erabakigarritan ezarri ziren konpromisoak: pobrezia, hezkuntza eta trebakuntza, emakumeen kontrako indarkeria, gatazka armatua, ekonomia, boterea eta



erabakiak hartzea, berdintasunerako mekanismo instituzionalak, giza eskubideak, komunikabideak, baliabide naturalak eta ingurumena eta neskatoen eskubideak.

Nahiz eta ordutik 25 urte baino gehiago pasa diren, Adierazpenak eta Ekintza-plataformako agendak indarrean jarraitzen dute.

2020 urtean Emakumeen egoera juridiko eta sozialaren batzordearen (CSW) 64. saioan, Nazio Batuetan zehazki generoen arteko berdintasunerako eta emakumeen ahaldunderako den gobernu arteko organo nagusia, IV. Konferentzia oroitua eta berrikusi zen eta Beijingen 1995ean egindako konpromiso politikoak berresten zituen deklarazio bat onartu zen. Gainera, orduan erabakitakoa betetzen jarraitzeko konpromisoa hartu zen, munduan oraindik ez baitago emakumeen eta gizoneen arteko berdintasunik.

Horrela, konferentziaren 25. urteurrenaz baliatuz, NBE Emakumeak erakundeak emakumeen eskubideen aldeko hurrengo aktibisten belaunaldiak, berdintasuna defendatzen duten aktibistak eta Beijingeko Ekintza-plataforma sortzeko ezinbestekoak izan ziren etorkizun-seneko pertsonak elkartu zituen. Era horretan, adin eta genero orotako pertsonak elkarrekin *Berdintasunaren belaunaldia: emakumeen eskubideen eta etorkizun berdinezale baten alde* kanpaina eta foroa bultzatu zuten.



Berdintasunaren belaunaldia foroa

Berdintasunaren Belaunaldia foroaren garapenak Covid19ak sortutako pandemiaren trabarekin topo egin zuen. Pandemiak Bejingeko IV. urteurrenerako aurreikusitako ospakizunetan eragin zuen eta 2021 urtera atzeratu ziren. Horrela, NBE Emakumeak erakundeak antolatu zuen eta sozietate zibilarekin eta gazteriarekin elkarlanean Frantziako eta Mexikoko gobernuak buru ziren foroa Mexiko hirian egin zen 2021eko martxoaren 29tik 31ra eta Parisen 2021eko ekainaren 30etik uztailaren 2ra. Foro horrekin genero-berdintasunaren arloko mundu mailako ekintza eta inplementazio handiak azkartzeko bost urteko bide bati hasiera eman zitzaion genero-berdintasunaren aldeko koalizio boteretsu eta iraunkor bat bultzatzearen bidez.

Foroak aktibista, feminista, gazte eta aliatuak biltzea posible egin zuen berdintasunak COVID osteko agendan paper garrantzitsua izan zezan ziurtatzeko eta zetozen belaunaldientzat aldaketa eraldatzailea lortzeko. Aldaketa horren ondorioz, Garapen iraunkorreko helburuak lortzeko, genero-berdintasunerantz era nabarmenean hurbildu nahi zen Nazio Batuetako Ekintzarako 2020-2030 hamarkadan.

Ekintzarako koalizioak

Ekintzarako koalizioak gobernuak, sozietate zibila, nazioarteko erakundeak eta sektore pribatua barne hartzen dituzten mundu mailako partehartzaile anitzeko aliantza berritzaileak dira. Honako helburu hauek dituzte:

- Ekintza kolektiboak bultzatzea
- Mundu mailako belaunaldien arteko elkarrizketa izatea
- Inbertsio publiko eta pribatu handiagoa sustatzea
- Neskatoei eta emakumeei mesede egiten dieten belaunaldien arteko emaitza eraldatzaile zehatzak lortzea

Ekintzarako koaliziorako gaiak giza-eskubideen printzipioetan oinarrituta daude eta kontsulta prozesu baten emaitza dira. Prozesu horretan parte hartu zuten nazioarteko talde feministek, gizartearen oinarriko talde aktibistek, gobernuek eta beste talde interesdun batzuek, gainera, analisi bat egin zen informazio estatistikoan oinarrituta. Hauek dira gai horiek:

- Genero indarkeria
- Justizia eta eskubide ekonomikoak
- Gorputzaren autonomia, eskubideak eta osasuna sexuan eta ugalketan
- Justizia klimatikorako ekintza feminista Genero-berdintasunerako teknologia eta berrikuntza
- Genero-berdintasunerako teknologia eta berrikuntza
- Mugimendu eta lidergo feministak

Foroak mundu mailako buruzagiak elkartu zituen aurrerapena bizkortzeko ekintza zehatzak bultzatzeko. Bertan parte hartu zuten sozietate zibilak, gobernuek, gazteek zuzendutako elkarteek, sektore pribatuak, nazioarteko elkarteek, herritarrek, sindikatuek, komunikabideek eta abarrek.

Beijing+25etik berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen alde herri itunera

Euskadik Beijingeko Adierazpena eta Ekintza-plataformaren 25. urteurrenaren ospakizunean parte hartzea erabaki zuen, izan ere, adierazpena eta plataforma berdintasun politiketan mundu mailako erreferente da eta Euskadi beti egin du esparru horretako nazioarteko testuinguruarekin bat.

Horrela, 2020ean Beijingeko 25. urteurrena ospatzeko, Emakunderekin batera 1995eko mundu mailako topaketan parte hartu zuten Euskadiko emakumeei publikoki eskerrona adierazi zitzaien. Aurrerago, 2021ean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen bidez, Generation Equality ekimenaren testuingurua erabili nahi izan zen Euskadik berdintasunarekin duen konpromisoan beste pauso bat emateko herriko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak elkartuz.

Zergatik?

Beijingeko Konferentzia eta horren Ekintza-plataforma euskal gizartean eta bere erakundeetan bultzatu diren ibilbide-orrira dira, baina aurrerapenak lortu badira ere, berdintasunak erronka izaten jarraitzen du zentzu askotan.

Nori zegoen zuzenduta?

Gizarte, hezkuntza, kultura, ekonomia eta politika eragile guztiei, erakundeei eta herritarrei, berdintasuna elkarrekin eraiki behar den talde lana baita.

Nola?

Hausnarketarako prozesu-partehartzaileak martxan jarri taldeen barruan, taldeetatik kanpo edo belaunaldien arteko ikuspuntu intersektional eta holistiko batetik euskal gizarteko beste erakunde batzuekin batera.

Zer egiteko eskatzen diegu?

- 1 Erakunde bakoitzeko egoera aztertzea berdintasunaren esparruan.
- 2 Azken 25 urteetan egindako aurrerapausoak identifikatzea.
- 3 Berdintasunaren esparruan etorkizunerako erronkak identifikatzea.
- 4 2026rako lortu beharreko konpromiso zehatzak ezartzea.

Hausnarketa prozesuak eta horien emaitzak: gure herri Itunaren oinarria

1995ean Beijingen Ekintza-plataforma onartu zenetik berdintasunerantz egindako bidearen azterketa hori egiteko eta hemendik 2026ra bete beharreko konpromisoak ezarri ahal izateko, parte hartu zuten eragileei markatutako ibilbidea eman zitzaion, baita lan-metodologia eta belaunaldien arteko ikuspuntua eta ikuspuntu interseksionala zuten erreferentzia-materialak ere.

Ibilbidea aurretik Euskadiko Gazteriaren Genero-berdintasunerako teknologia eta berrikuntza eta Emakundeko Kontsulta Batzordeak (emakumeen elkarteetan eta Erakundearen artean komunikaziorako bidea izatea helburu duen organoa) frogatu zuten. Transmisio esperientzia bat izan zen, belaunaldien artekoa eta interseksionala eta bertan bi erakundee-tako ordezkariak parte hartu zuten.

Berdintasuna inor atzean utzi ezin duen herri mailako erronka delako premisatik abiatuta, 2021eko apirilaren 26an Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Emakunderen bidez proiektuan parte hartzeko gonbidapena egin zuen. Mota askotako ehundaka erakundek parte hartu zuten helburu argi batekin: gure herriak emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko duen konpromisoa indarberritzea.

Proiektuaren lorpen eta emaitza nagusiak

1. Fasea: proiektuaren jendaurreko aurkezpena eta hasiera

Jendaurreko jardunaldi batean Euskadi mailako "Beijing +25etik berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzeko alde herri Ituna" proiektuaren helburuak azaldu ziren.

Euskal gizarte osoa lan-prozesuan parte hartzera gonbidatu eta motibatu zuten eta Euskadi mailako berdintasunaren aldeko emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzeko alde hitzarmen sozial eta herritarra egiteko prozesua hasi zen NBE EMAKUMEAkeko Generation Equality ekimenaren testuinguruan.

410

GONBIDATUTAKO ERAKUNDE

93

ERAKUNDEK PROIEKTUAN
PARTE HARTZEKO
INTERESA ADIERAZI ZUTEN

2. Fasea: proiektuaren metodologiaren garapena

Esperientzia pilotua: 2021eko apiriletik irailera

Zer, nortzuk, zergatik?

Nortzuk?

EGK

EUSKADIKO GAZTERIAREN
KONTSEILUKO burua eta berdintasun
taldeko 4 kide.

Aholku batzordea

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aholku
azpibatzerdeetako 4 ordezkari, eta ABK
Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluan
duen ordezkaria.

GOGOETA 3 UNEREN INGURUAN

1995

Konferentziaren eta
ekintza planaren urtea
munduan berdintasuna
sustatzeko (adierazpena
eta ekintza plataforma)

2021

25. Urtemugaren
ospakizua: gertatu diren
aldaketak eta aurrerapenak

2026

Ikusmuga honakoak lortzeko:

Genero arrakal
gutxiago

Berdintasun
gehiago

EMAITZA NAGUSIAK

Konpromisoak lortze aldera bideratutako 8
lan-saio.

Arrasto handia eragin-esparru hauetan:
EGK (Gazteriarekin lotutako 60 elkarte)
eta kontsulta-batzordea (Euskadiko 341
emakume-elkarte).

Belaunaldien arteko elkarriketa
intersektionala solaserako bi tokiren artean.

Itunerako lehen konpromisoa egin zen.

Metodologiaren diseinua

Esperientzia pilotuaren bidez, eduki eta materialak egin ziren erakundeek konpromisoak hartzeko prozesuari buruz aholkuak modu pedagogikoan emateko. Material pedagogiko zehatz eta ulerterraza egin zen, 6 pausoko lanerako ibilbide bat, 2026rako berdintasunaren aldeko konpromisoak hartzeko prozesuan erreferentziatzeko material gisa erabiltzeko.

Esperientzia pilotuaren sozializazioa

Lan-esperientzia sistematizatu zen eta lan-prozesuen hasieran zeuden erakundeei zuzendutako lan-saio bat aurkeztu zen haiek itunerako konpromisoak egiteko.

30 erakundek parte hartu zuten online egindako aurkezpen-jardunaldian.

Aurkezpena eta esperientzia horri lotutako materiala (kontsulta-batzordearen eta EGKren arteko elkarrizketa-esperientziaren laburpen grafikoa) proiektuaren kontsultarako, erreferentziarako eta dibulgaziorako materialaren artean dago eta material horien osagai gisa zabaltzen da.

Badago esperientzia praktikoa eta berritzaile bat, elkarlanean ikasiz izandakoa. Esperientzia hori erakundeek prozesua has dezaten erreferentzia eta pizgarri da.

3. Fasea: lan-prozesuak dinamizatzea

Lan-saioak erakundeekin.

Hiru saio dinamizatu ziren lan-prozesua azaltzeko, hainbat fasetatik/momentutatik abiatuta:



EMAITZA NAGUSIAK

.....

Guztira **452 pertsonak, 371 emakumek** eta **81 gizonak**, hainbat erakundetan antolatu diren lantaldeetan parte hartu zuten ituneko konpromisoak lantzeko.

Formakuntza-saioak baliabide gisa txerutzen dira proiektuetan. Informazio

hori publikoa da eta edozein erakundek kontsultatzeko eskuragarri dago.

Helburua betetzeko aholkularitza

Erakundeek haien lanerako prozesuak abiarazteko tresna multzo bat izan dute:

Hausnarketarako jarraibideak

Adituen aholkularitza

Hartu-emanerako eta elkarrengandik ikasteko espazioa

46 lan-saio egin dira (aurrez aurre, online eta telefono bidez) sortutako lantalde bakoitzaren laneko prozesuei buruz aholkuak emateko.

Konpromisoak hartzea

Lan-prozesuaren emaitza da egin zen dokumentu formal bat. Bertan erakundeek 2026 urtera arte emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko hartutako konpromisoak bildu zituzten.

Guztira 452 pertsonak, 371 emakumek eta 81 gizonak, 38 taldetan banatuta era aktiboan parte hartu zuten proiektuaren fase guztietan eta berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako konpromisoa adierazi zuten.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tokiko 14 erakundek

kirol alorreko erakunde 1ek

4 heziketa zentrok

2 goi mailako heziketa zentrok

hirugarren sektoreko 6 erakundek

hausnarketarako, elkarrizketarako eta berdintasunean eragiteko 6 espaziok

3 enpresak

alderdi politiko 1ek eta

erakunde-sindikak 1ek

berdintasunaren aldeko konpromisoak hartu dituzte 2026rarte, proiektuaren testuinguruan.

Hartutako konpromisoek berdintasunerako bidean aurrera egiten laguntzen dute NBE Emakumeak erakundeak markatutako garrantzi bereziko 6 alderdietan:

Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin bukatzea

Justizia eta eskubide ekonomikoak

Gorputzaren autonomia, eskubideak eta osasuna sexuan eta ugalketan

Justizia klimatikorako ekintza feminista

Genero-berdintasunerako teknologia eta berrikuntza

Mugimendu eta lidergo feministak

Konpromisoetatik herri itunera.

Ekimen horrek hausnartuarazi digu, informazioa eta jakintzak partekatzea ahalbidetu digu eta elkarrekin berdintasuna egongo den etorkizun bat imajinatzea ere posible egin digu. Baina batez ere, belaunaldien arteko transmisiorako, ondarea kudeatzeko, aukera eman digu, euskal gazteria mundu mailako kate horrekin konprometitu behar delako. Nahitaezkoa da haiek dituzten berdintasunarekin lotutako eskubideak nola lortu ziren barneratzea, balioestea, ezagutzea, ulertzea eta ikastea eta eskubide horien garapenean konpromisoa hartzea, etorkizunean bermatu daitezen.

Testuinguru horretan, ikus daiteke erakundeek urte bat baino gehiago eman dutela lanean markatutako parte hartzeko prozesu batean, etorkizunerako haien konpromisoak landuz.

Baina nola pasa daiteke hainbat erakunderen konpromiso multzo batetik herri itun bat egitera? Hemen prozesu horren GILTZARRIAK azalduko dira.



1. Pausoa: konpromisoak biltzea

Erakunde bakoitzak era formalean berdintasunaren aldeko bere konpromisoak adieraztea Emakunderen webgunean eskuragarri dagoen eredu edo txantiloia komun batetik aurrera. Konpromiso horiek Berdintasunaren Belaunaldia foroko ekintzarako koalizioak datozen urteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetakoa izan dadin lehenesten dituen 6 eremuekin lotuta egon behar dira: justizia eta eskubide ekonomikoak, gorputzaren autonomia eta osasuna eta eskubideak sexuan eta ugalketan, genero indarkeria, generoen arteko berdintasunerako teknologia eta berrikuntza, justizia eta eskubide ekonomikoak, justizia klimatikorako ekintza feminista eta mugimendu eta lidergo feministak. Gainera, erakundeek eremu guztiak hartzen dituzten zeharkako esparruetan egin zitzaketen konpromisoak, esate baterako, berdintasunaren inguruko araudi bat, genero-ikuspegidun aurrekontuak eta sexuak bereizten dituzten estatistikak.

70 konpromiso desberdin biltzen dira, proposatutako hausnarketa-prozesua egin duten erakundeek bultzatuak.

2. Pausoa: edukia analizatzea

Konpromisoak bildu ondoren, aldagai hauek kontuan hartuta aztertzea:

Konpromisoa sinatzen duen erakundearen alorra. 7 alor identifikatzen dira, erakunde motaren eta horren eragin-esparruaren arabera:

- Instituzioak
- Heziketa
- Kirola
- Gizartea
- Elkarrizketa eta errealitatean eragina
- Enpresa
- Politika
- Sindikatuak

Konpromiso mota eta lotura Nazio Batuek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko esku hartu behar dela deritzoten 6 esparruekin.

Konpromisoaren edukiak, hau da, erakundeek konpromisoa zein modutan gauzatzen den 2026raino prestatutako berdintasunerako bidean.

3. Pausoa: konpromisoak kategorizatzea eragiteko arlo edo multzo komunen arabera

Lortutako informazioaz baliatuz konpromisoak zehaztasun handiagoz kategorizatzea eta proposamenen kategorizazioa egitea erreferentziatzen EAEko berdintasunaren inguruko araudia eta berdintasunerako Euskadiren 2026rako erronkak hartuz. Analisi horrek etorkizuneko herri Itunaren oinarria eraikitzeko 10 arlo edo gai-multzo identifikatzea ahalbidetzen du. Beheko taulan arlo horiek deskribatu dira, gainera, horien eduki batzuk eta horietako bakoitzari lotutako konpromiso kopurua zehaztu dira. Konpromiso batek arlo edo multzo bat baino gehiago barne har ditzake.

	Espezialitate arloak	Lotutako konpromisoak
	01 Justizia ekonomikoa	8
Lana, arrakala soldatan eta pentsioetan, enpresen konpromisoa berdintasunerako bidean, etab.		
	02 Emakumeen eta neskatuen ahalduntzea	8
Erabakiak informazioarekin eta askatasunez hartzea, bizitzako esparru guztietan parte hartzea, sexu-heziketa holistikoa, etab.		
	03 Emakumeen kontrako indarkeria matxista	13
Araudia garatzea, koordinazioa hobetzea, indarkeria matxista saihestea, etab.		
	04 Hautzaroa eta nerabearoa	5
Oso txikitatik berdintasunari buruz ikastea, hezkidetzak, berdintasunerako belaunaldien arteko elkarriketa bultzatzea, etab.		
	05 Zaintzak	3
Zaintzaren garrantzia bizitzari eusteko, banaketa, sektorea duin bihurtzea, etab.		
	06 Gizonen papera eta garrantzia	3
Gizonen parte-hartzea berdintasunerako bidean, maskulinitatearen eredu tradizionala zalantzan jartzea, etab.		
	07 Trantsizio ekologikoa	2
Energia-eredu jasangarri eta bidezkoa, desberdintasunak handituko ez dituen, emakumeentzako ekonomia "berdea", informazioa pertsona guztientzat eskuragarri, etab.		
	08 Eraldaketa digitala	3
Emakumeen presentzia handiagoa STEAM ezagutza-esparruan, emakumeen lidergoa teknologian, teknologia digitalak berdintasunari mesede egiteko erabiltzea, etab.		
	09 Emakumeen mugimenduak eta lidergo feministak	7
Emakumeen eta feminismoaren papera Euskadin berdintasunerantz aurrera egiteko bidean, intersekzionalitatea, emakumeen elkarte, talde eta sareei laguntzea, etab.		
	10 Gobernu ona	18
Ikertuntza, berdintasunera bideratutako baliabideak, kontu ematea, politika guztietan generoaren zeharkakotasuna, etab.		
	KONPROMISO KOPURUA, GUZTIRA	70

4. Pausoa: Itunaren ikuspuntua eta egitura entitateekin kontrastatzea

Ituna garatzeko oinarri izango diren arloen lehen egitura prest izan ondoren, informazio hori prozesuan parte hartu duten erakundeekin lehenengo aldiz kontrastatzea, haien ikuspuntua ezagutu eta gehitzeko. Aldi berean, erakundeak azaltzen zaie zer nolako ikuspuntua eman nahi zaion egin nahi den Itunari. Kontrastatze horren ondorio dira hasierako proposamena hobetu eta Itunaren ikuspuntua eta egitura baliozkotzea.

Itunaren ikuspuntua: beste berdintasun pedagogia bat egitea ahalbideratuko duen itun bat lortu nahi da, Euskadik berdintasunaren bidean aurrera egiteko dituen erronka premia-koenetan eragina izango duena eta elkarren artean heterogeneoak diren erakundeak interpelatuko dituena.

Egitura: lehen aipatutako 10 espezialitate-arloak.

Bi kontraste-saioetan parte hartu zuten erakunde guztiek etorkizuneko Itunaren edukien egitura baliozkotu zuten.



5. Pausoa: herri Ituna lantzea

Lan-sekuentzia horretatik aurrera lantzen eta garatzen da berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Ituna.

PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK

Lauaxeta Ikastola
Ortuellako Udala / Ayuntamiento de Ortuella
Gatikako Udala
Murgibe S.L.
Ayuntamiento Abanto Zierbena
Asociación de Cooperación al Desarrollo de Mujeres Kongovascas FAMEK ELKARTEA
IES Juan Antonio Zunzunegui BHI
Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordea
Universidad de Deusto
Ayuntamiento de Portugalete
Euzko Gaztedi - EGI
EDE Fundazioa
Economistas sin Fronteras
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
Unión General de Trabajadoras y Trabajadores de Euskadi (UGT-Euskadi)
Alboan
Aiarako Kuadrilla
Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Gizardatz
Ayuntamiento Barakaldo
Zamudioko Udala
Santurtziko Udala / Ayuntamiento de Santurtzi
Cruz Roja Álava / Arabako Gurutze Gorria
Elorrioko Udala
Ordiziako Udala
Bilboko Udala
Itelazpi S.A.
Asociación Sartu - Álava
UN Etxea
VW Basqueskola Sarea
Errenteriako Udala
Arrigorriagako Udala
Leioako Mesedetako Andra Mari Ikastetxea
Ceip Divino Maestro - María de Maeztu
Athletic Club
Euskal Gazteriaren Kontseilua / Consejo Vasco de la Juventud
Comisión Consultiva de Emakunde
Arabako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte - AMPEA

Herri Ituna berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzen alde.

Hitzarmen horren sinatzaileen artean gaude Euskadiko instituzio publikoak; enpresen, sindikatuen eta hirugarren sektoreko erakundeak; enpresak; hezkuntza zentroak eta unibertsitateak; elkarrizketa espazioak; mugimendu asoziatiboa, eta herritarrak orokorrean.

Ordezkatzen dugun dibertsitatetik orain aipatuko ditugun 2026arteko KONPROMISO orokorrekin bat egiten dugu.

01

.....

Justizia ekonomikoa

Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzea bizitzan zehar.

Lan duina bultzatzea jarduera tasa eta enplegu tasa handitzeko eta emakumezko langile txiroen kopurua txikitzeko.

Euskadiko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala txikitzea.

Euskadiko enpresa eta erakundeen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa indartzea.

02

.....

Emakumeen eta neskatuen ahalduntzea

Emakumeen eta neskatuen ahalduntzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintzat hartzea, Emakumeen Munduko IV. Konferentzian adierazi zen bezala (Beijing, 1995).

Emakumeek arlo eta espazio guztietan askatasunez erabakiak hartzeko aukera izatea bermatzea, bai alderdi pribatuan, bai publikoan.

Heziketa sexual holistikoa bultzatzea, emakumeek haien gorputzari, sexualitateari eta erreprodukzio-bizitzari buruz autonomiaz estereotipatu gabeko erabakiak hartzea bultzatzea eta horretarako babesa ematea.

Emakumeak haien bizitzetan; Euskadiko bizitza sozial, ekonomiko eta kulturalen protagonista izatea lortzeko mekanismoak eta "kristalezko sabaia" gainditzen lagunduko dioten mekanismoak.

03

Emakumeen aurkako indarkeria matxista

Emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria matxistarekin bukatzea eta indarkeria hori giza eskubideen bortxaketa larri kontsideratzea. Gizarte-arazoa da, egiturazkoa, lehen mailako osasun publikoaren arazoa eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen larriena.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legea garatzea, birbiktimizazioa saihesteko aurreikusitako neurriak martxan jartzea eta biktima diren / bizirik atera diren emakumezkoen erreparazioa bultzatzea.

Emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria matxistaren aurrean instituzioen arteko koordinazioa eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak indartzea eta lankidetzak horretan sakontzea.

Haurrak oso txikiak direnetik indarkeria matxista saihestea, gizonzkoek eta mutikoek esku-hartzea bilatuz. Era berean, indarkeria mota ezkutukoak hobeto antzematea eta horien aurrean ematen den arreta hobetzea. Indarkeria mota horien artean daude ziberindarkeria, sexu-indarkeria, indarkeria ekonomikoa eta emakumeen eta neskatuen salerosketa.

04

Haurtzaroa eta nerabezaroa (belaunaldi gazteenak)

Erraztea haurrek oso txikitik ikastea pertsona guztiok berdinak garela eta emakumeen eta gizonen desioek, itxaropenek, ekarpenek, iritziek eta ekintzek balio eta ikusgarritasun bera izan behar dutela.

Hezkidetzak bultzatzea hezkuntza-komunitatetik desberdintasunak txikitzeko, gizartetik datozen emakumeen eta gizonzkoen izaerari eta portaerari buruzko agindu eta estereotipoak desagiteko, baita neskatuen ahalduntzea bultzatzeko eta mutikoek etorkizuneko berdintasunaren aldeko aldeketen eragile izateko inplikazioak ere.

Baldintza aproposak sortzea belaunaldi gazteenek ikasteko desberdintasunak eta emakumeen aurkako bereizkeria (baita ezkutukoak ere) identifikatzen, egoera horien kontra ekiten eta haien aniztasunean duten berdintasunerako eskubidea erabiltzen. Aipatutako desberdintasun eta bereizkerien artean daude sare-sozialetan egiten direnak.

Emakumeen giza eskubideen eraikuntzan eta garapenean aurrekari eta erreferentzia izan ziren emakumeak ezagutzea, haien lorpenak finkatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean egindako lorpenak ziurtzat ez jotzea. Horrez gain, berdintasunerako belaunaldien arteko trukea eta elkarrizketa bultzatzea eta arrastoa uztea berdintasun handiagoko herri baten eraikuntzan belaunaldi gazteagoek prozesu horretan erreleboa har dezaten.

05

Zaintzak

Zaintzek –ordaindutakoek edo ordaindu gabekoek- bizitzari eusteko, pertsona guztien ongizaterako eta elkarbizitzarako duten berebiziko garrantzia aitortzea eta zaintzaren etika eta praktika zabaltzea bultzatzea, norberaren zaintza barne, batez ere gizonezkoen artean.

Alderdi publiko eta pribatuan emakumeen eta gizonen arteko zaintzen erantzukizun partekatua bultzatzea, zaintza publikoari geroz eta indar handiagoa emanaz eta pertsona guztiak independenteak garela eta zaintzen beharra dugula, etapa batzuetan besteetan baina gehiago, kontuan hartuz.

Zaintzen errespetua eta banaketa zilegiagoa bultzatzea etxeetatik eta familia-eremutik atera daitezen batez ere emakumeek egiten dituzten zaintza asko eta gizonek, erakundeek, enpresek, eragile sozial eta ekonomikoek, komunitateak eta orokorrean gizarteak ere horren erantzukizuna har dezaten.

Zaintzen sektoreari duintasuna ematea eta horretan lan egiten dutenen baldintzak hobetzea, lan mota hori batez ere prekarizatuta dago etxeko langileen kasuan.

Etxeko lanak eta zaintzak egiten dituzten pertsona zaurgarriek ere norbere zaintzarako, bizitza osasuntsuak izateko eta lana bezalako baliabideak izateko eskubidea ere izateko neurriak bultzatzea. Pertsona horien adibide dira guraso bakarreko familiak.

06

Gizonen eta mutikoen inplikazioa

Desberdintasunak eta jerarkia dituen gure gizarte-ereduan, gizonezkoek gizarte-talde bezala pribilegioak ematen dizkien botere egoera eta maila bat dutela kontuan hartzea eta ezinbestekoa dela pribilegio horiek eta emakumeengan, gizartean eta gizonen hazkuntza pertsonalean eta giza-garapenean sortzen dituzten ondorio negatiboak desegitea.

Ohartzea berdintasunerako aurrerapena ez dela emakumeen zeregina bakarrik, gizonezkoena ere badela, eta horregatik haiek parte hartzen duten espazio guztietatik inplikatzeko eta ekitea ezinbestekoa dela.

Agerian jartzea berdintasunak ez dela emakumeen eta neskatuen mesederako bakarrik, gizonen eta mutikoen eta gizartearen onurarako ere badela.

Maskulinitate-eredu tradizionala zalantzan jartzea eta beste maskulinitate batzuk bultzatzea, aniztasunarekiko errespetuz, emakumeen eta gizonen berdintasunaren bidean aurrera egiteko konprometituta eta indarkeria matxistaren kontra.

07

Trantsizio ekologikoa

Emakumeek eta emakumeen erakundeek eskaintzen duten jakintza gehitzea lurraren berotzearen eta Euskadin dituen ondorioen aurrean konponbideak bilatzeko prozesuari. Ondorio horien artean daude lurraren berotzeak sor ditzakeen migrazio-prozesuek sor ditzaketan generoen arteko desberdintasunak.

Jasangarria eta bidezkoa den energia-eredu baterantz aurrerapausoak emateko politika publikoak eta gizarte osoaren esku-hartzeak bultzatzea. Eta politika eta esku-hartze horiek gauzatzea ekologiarekiko menpekotasuna kontuan izanda eta muinean pertsonak jarritz, emakumeek pairatzen dituzten desberdintasunak handitu gabe.

Ekonomia "berde"ak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea, baita naturarekin lotutako jarduerak ere horrela emakumeen jarduera tasa eta enplegu tasa handitzea.

Pertsona guztiek klima-aldaketa eta horrek generoaren arabera dituen ondorio ezberdinak uler ditzaten informazio eskuragarria sortzea. Gainera, sustatzea portaera-ohiturak aldatzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duen garapen iraunkorraren aldeko konpromisoak.

08

Eraldaketa digitala

Teknologia digitalak aprobetxatzea generoen arteko berdintasunerantz aurreratzea ahalbideratuko duten ereduak bultzatzeko eta ikuspuntu feministatik abiatuta indarkeria matxista gutxitzeko.

Neskato eta emakumeek STEAM "zientzia, teknologia, ingeniariaritz, arteak eta matematikak" hezkuntzarekiko duten interesa eta konpromisoa handitzea bultzatzeko ekintzak sustatzea.

Diseinuan, ekoizpenean, berrikuntzan, eta teknologien lidergoan ari diren emakumeak bistatzeko ekintzak bultzatzea.

Kontuan hartzea pertsona guztiak ez direla puntu beretik abiatzen digitalizazio-prozesuan eta arrakala digitalak gehiago eragiten diela emakumeei, batez ere adina, hezkuntza-maila eta egoera ekonomikoa kontuan hartzen badira.

09

Emakumeen mugimenduak eta lidergo feministak

Aintzat hartzea emakumeek eta feminismoak Euskadiren garapenean eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egitean izan duten rola.

Baliabideekin laguntzea emakumeen erakunde, talde eta sareak, edota emakumeen eta neskatuen eskubideak defendatzen dituztenak, horien elkarriketa soziopolitikorako eta haien proposamenen eraginerako erraztasunak emanez.

Desberdintasun handiagoak dauden errealitateen (migrazioa, desgaitasuna, indarkeria matxista, landa-bizitza) ordezkari diren emakumeen taldeei haien ahotsa entzutea ahalbideratuko dieten espazioak sortzea.

Emakumeen mugimenduekin, feministak diren eta Euskadin berdintasunaren alde lan egiten duten taldeekin aliantzak sortzea.

10

Gobernu ona

Euskal botere publikoek garatzen dituzten politika eta ekintza guzietan maila eta fase guztietan behar eta egoera anitzak eta emakumeen eta gizonen interesak kontuan hartzen dituztela ziurtatzeko ezinbesteko estrategia gisa genero-ikuspegia txertatzeko aukera kontuan hartzea.

Arlo guztietan emakumeen kontrako desberdintasunak mantentzen dituzten kausen ikerketa bultzatzea eta sexuak bereizten dituen datuekin pertsona guztien errealitatea ikustea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera bideratutako baliabide pertsonalak, ekonomikoak eta materialak handitzea.

Instituzioen artean berdintasunaren aldeko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzea.

Berdintasunerantz aurrera egiteko egiten den lanaren eta horren ondorioen kontu ematen dela ziurtatzea.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTI POLITIKETAKO SMLA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



**GENERATION
EQUALITY**